

VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN GARDENTASUN KONTSEILUAREN IRIZPENA, UDALAREN GARDENTASUN BETEBEHARREN BETETZE MAILARI BURUZKOA. 2017KO EKITALDIA.

SARRERA

2018ko maiatzaren 28an aurkeztu zitzaion Udalaren Gardentasun Kontseiluari Gardentasun eta Herritarrei laguntzeko Zerbitzuak egindako "**Vitoria-Gasteizko Udalaren Publizitate Aktiboari eta Informazio Publikoa Eskuratzeko betebeharrei buruzko Txostena. 2017ko ekitaldia**".

Araudi Organikoaren 87. artikulua honako eginkizuna ematen dio aholku-organo horri: "*publizitate aktiboaren arloan eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea babesteari dagokionez Gasteizko Udalak dituen betebehar eta konpromisoak betetzen diren zaintzea*".

Eginkizun hori betetze aldera, Araudi horretako 89. Artikuluak dio Kontseiluak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikuluan aipatzen den "**publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txostenari irizpena eman**" beharko diola.

66. artikulua. Gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzko betetze-mailaren jarraipena

1. Urte naturaleko lehen hiruhilekoan, txostena egingo da publikizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharrak aurreko urte naturalean zein neurritan bete diren jakiteko.

2. Txosten horrek ondorengo alderdi hauek aztertu eta azalduko ditu, gutxienez:

a) Udalak eta 47. artikuluan aipatutako bere menpeko gainerako subjektuek zein neurritan bete dituzten publikizitate aktiboko euren betebeharrak. b) Gardentasunaren atarian kontsulta gehien izan dituzten edukiak. c) Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidearen erabilera: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso osorik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzekoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adin-tartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).

3. Egindako txostena publikizitate aktiboari dagokion informazio guztiarekin batera argitaratuko da.

Gardentasunaren Udal Kontseiluak txosten hori aztertu eta eztabaidatu du eta, ondorioz, irizpen hau ematea erabaki du.

IRIZPENA

0.- GAI OROKORRAK.

A) Herritarrei ematen zaien informazioa kalitatezkoa, argia eta guztientzako irisgarria izateko beharrari buruz.

2016.eko txostenari buruzko egindako irizpenean ikuspuntu hau jaso genuen ere, Gardentasun Legearen 5.5. artikulua araberan, gardentasunaren oinarritzko printzipio bat da eta informazio oro *ulergarria, eskura-erraza eta doakoa* izatea eta *desgaitasun bat duten pertsonentzat irisgarri eta ulergarri diren bide edo formatuetan eskura dagoena, irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren printzipioen arabera*. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak, berriz, 50.5 artikuluan, horri gehitzen dio, informazio hori izan behar dela *"egiazkoa, erraz eskuratzeko modukoa, bereizkeriarik egiten ez duena, argia, erraza eta zehatza behar du izan; eta, gainera, herritarrek ulertzeko moduko mezuekin osatu beharko da; horretarako, batez ere bideoak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak eta ematen den informazioaren nondik norakoak hobeto ulertzen laguntzen duten beste edozein konposizio-bide erabiliko da, orria edo dokumentu-euskarria osatzeko"*.

Alegia, gardentasuna ez dela informazioaren iraulketa masiboa egitearen sinonimo. Gardentasuna egiazkoa izan dadin, informazio horrek kalitatezko, argitasunezko eta irisgarritasunezko baldintza batzuk bete behar ditu.

Zentzu honetan, Udalaren Gardentasun Kontseiluak uste zuen Udalean ildo formalak eta egituratuak egon beharko lirakeela herritarrei ematen zaien informazioak irizpide horiek betetzen dituela egiaztatzeko. Eta hori, ez bakarrik webgunean informazioa argitaratzerakoan, baizik eta baita ere formulario, ebazpen, gutun eta era guztietako informazio publikoa, izapide automatizatuak, eta abar Jakinaraztean ere.

Gogoratzen genuen ere 2014ko ekainaren 27an Vitoria-Gasteizko Udalbatzak aho batez onartu zuela udalaren agiriak irakurketa errazeko irizpideekin idatzi beharrari buruzko mozioa.

Udal zerbitzuetan gain honekin loturik dauden zenbait proiektuetan ari dira lanean eta idazki batzuk bigarren bertsio bat, irakurketa errazari buruzko irizpideak jarraituz, eduki dezaketela iradoki egin da. Beste administrazioetako esperientziak ere arakutzen ari da Udala. Baina gaia ez da erraza, informazioa galdu daitekeelako eta oniritzia eman behar diona zein den zehaztu egin beharko litekeelako.

Horregatik, Kontseiluak alde honetan udal mailan egiten ari den lana positiboki baloratzen duen arren, berriro ere gomendatzen du,

- **Hizkuntz kalitateari, azalpenen argitasunari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko irizpide batzuk ezar daitezela, modu masiboan jakinaraziko den edozein agiri edo komunikaziori aplikagarri zaizkionak, eta izenda dadila udaleko instantzia edo lantalde bat irizpide horiek betetzen direla zainduko duena.**
- **Gutxienez, udaleko edozein organok modu masiboan jakinaraziko den agiri edo komunikazio bat diseinatzen duenean, agiri hori aztertu eta zuzendu dezala organo edo batzorde berezi batek, agiri horrek zorrotasuna, hizkuntz kalitatea, azalpenaren argitasuna eta irisgarritasun unibertsala uztartzen dituela egiaztatzeko.**
- **Arian-arian, udaleko langileei irizpideak eta prestakuntza eman dakizkiela, egiten dituzten agiri guztiek irizpide horiek berak beteko dituztela bermatzeko.**
- **Horrez gainera, Udalari gomendatzen diogu ahal denean informazio publikoa azalpena argiago egingo duen informazio grafikoaz lagundua joan dadila.**

1.- ERAKUNDE, ANTOLAMENDU ETA PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

Txostenean ematen den informazioa eta egiten diren oharpenak ikusirik, Udalaren Gardentasun Kontseiluak gomendioak hauek egiten ditu oraingoan ere:

- **Udaleko zuzendaritza-lanpostuak edo erantzukizunekoak betetzen dituzten pertsonen ibilbide profesionalari buruzko informazioa eman dadila.**

- **Urteko eta urte anitzeko plan eta programei dagokionez, leku berean kontsultatzea ahalbidetu beharko litzateke, tresna normatiboa direnak eta ez direnak bereiztuz.**

laz emandako irizpenean legegintzaldiko Planaren gauzatze eta betetze-mailari buruzko informazioa eskaini zedila gomendioari dagokionez, 2018ko lehen hiruhilekoan kontu-emateen web plataforma jarri da abian udal atarian; hortaz, momentuz tresna egokia dela deritzogu.

Txostenak jasotzen dituen oharpenetan oinarritutako gomendioei, Kontseiluak hurrengo hauek, aurreko irizpenean agertzen zirenak ere, gehitu nahi ditu, baliabide publikoen gardentasuna areagotze aldera, Udalaren Gardentasun kontseiluak udal talde politiko guztiei hurrengo gomendio hau egiten die:

- **Argitara eman dezatela, ahal dela udal webgunearen bitartez, Vitoria-Gasteizko udalaren eskutik jasotzen duten diru-esleipenaren beren kontabilitate berezia.**

Hori guztia, kontutan harturik 19/2013 Legearen 6. artikulua eta 2/2016ko Legearen 52. Artikulua araberak, administrazioek, beste kontu askoren artean, "talde politikoei buruzko informazioa" eman behar dutela. Arlo honi dagokionez, udaleko webguneak jasotzen du, jaso ere, udaleko talde politikoei ordaintzen zaien diru-esleipenari buruzko informazio. Konkretuki, taula bat ageri du, udal talde bakoitzari hileroko ematen zaion diru-kopuruarekin eta urteko batura ere ageri duena. Atal berean zehazten da, Toki Araubidearen Oinarri Legearen 73.3 artikulua araberak, "*kopuru hau inola ere ezin dela erabili korporazioaren zerbitzurako langileei ordaintzeko, ez eta ondare izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak eskuratzeko ere*". Halaber, txostenak dio, legearekin batera "*Taldeek, ematen zaien diru-esleipenaren kontabilitate berezi bat eraman behar dute(la) eta udalbatzaren esku jarriko dute(la) Udalbatzak eskatzen dienean*". Egia da indarrean dagoen legediak ez dituela talde politikoak behartzen udalaren ekarpenak zertarako erabiltzen dituzten publikoki eta aldian-aldian informatzera. Are gehiago; kontu horiek ez ditu Kontu-hartzailera Nagusiak fiskalizatzen Udalbatzak ekarpen horien kontabilitate berezia eskatzen ez badu. Diru-esleipen hori dirulaguntza gisa hartu behar den edo ez alde batera utzita, agerikoa da Udalak talde politikoei ematen dien ekarpen hori udal-

aurrekontuetatik ateratzen dela, eta gainera diru horren erabilerak baldintza batzuk bete behar dituela.

2.- GARRANTZI JURIDIKO-NORMATIBOKO INFORMAZIOA.

Epigrafe honetako 1. Itemak honela dio: *“Publikoak izango dira, halaber, udal-organoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.”*

lazko irizpenean jasotzen genuen moduan, askotan, udalean hartzen diren erabaki eta ebazpenek, hartzaile indibidual jakin bat izan hala ez, beste pertsona askorengan edo herritar guztiengan ondorio juridikoak eragin ohi dituzte, nahiz eta pertsona horiek erabaki edo dena delako horretan aurreikusita egon ez. Gardentasun eta segurtasun juridikoko printzipioek gomendatzen dute, herritarrek, oro, funtsezko erabaki horiek ezagutu ahal izatea. Gai honetan, Kontseiluak gabezia nabarmen batzuk antzematen ditu. Esate baterako, udalean dekretuak eta jarraibideak ematen direnean, ez dago zuzeneko bide bat Udalaren eta webguneko informazioa kudeatzen duen Zerbitzuaren artean, erabakiok argitara emateko.

Txostenaren arabera, ez dago web gunean inon islatuta, ez baita garrantzi juridiko-nomatiboko erabaki horiek identifikatzeko irizpideak zehazteko lanik egin. Ondorioz, Kontseiluak hurrengo gomendio hau egiten du:

- **Herritarrengan eragina izan ditzaketen dekretu eta barne-jarraibideak zeintzuk diren zehazten laguntzen duten irizpideak landu daitezela, hala nola, ezarri beharreko araudia interpretatzen duten barne-erabakiak; udal politika publikoak eskaintzeko modu edo intentsitatean aldaketak eragin ditzaketenak; zerbitzu publikoak emateko moduari buruzko irizpideak aldatzen dituztenak; edozein zerbitzu edo udal prestazio lortzeko irizpideak arautu edo aldatzen dituztenak, etab.**
- **Akordio, dekretu edota instrukzio hauek identifikatu ondoren, argitara eman daitezela.**

Bestetik, ondorio juridiko agerikoak izan ditzaketen zenbait erabaki ez dira argitaratzen, adibidez, Organo Ekonomiko Administratiboak ematen dituen ebazpenak, edo Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren txostenak. Horregatik, dokumentu hauek identifikaturik daudenez, Kontseiluak honako gomendio hauek ematen ditu:

- **Daudekeen datu pertsonalak kendu eta gero, udaleko webgunean argitara eman daitezela Vitoria-Gasteizko Udaleko Organo Ekonomiko-Administratiboaren ebazpenak, eta batez ere aplikazio zabala izan lezakeen doktrina, kasu partikular horretatik haragokoa, ezartzen dutenak.**
- **Kontu-hartzailletza nagusiaren txostenak, edota Idazkaritza nagusiarenak publikoak diren bezalaxe, argitara eman daitezela, halaber, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren txostenak, hirugarrenengan ondorioak eragin ditzaketen heinean.**

3. itemak honela dio: *“testu normatiboak egiteko espedienteak osotzen dituzten oroitidazki eta txostenak...”*

Txostenean adierazten da item hau ez dela udal webgunean espezifikoki garatua izan, espedienteak osotzen duten oroitidazki eta txostenak dela eta, ez dago sistematika berezirik, arau testuak hasierako onespen fasean daudenean izan ezik. Udal web gunean kontsulta egin ondoren ikusi izan dugu txostenak hasierako onespena jaso duten araudietan gehitzen dela, baina indarrean dagoen araudietan, berriz, ez.

Agiri hauek ere argitaratzeko betebeharra loturik dago Toki Araubidearen Oinarri Legeak ordenantzak eta araudiak onartzeko ezartzen duen prozedurarekin, bai eta araugintzari buruz 39/2015 Legeak, Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoak, jasotzen duen araudi berriarekin (127. artikulua eta hurrengoak). Eskakizun honen xedea litzateke, ebaluatu ahal izatea ea arau bat onartzerakoan behar den prozedura jarraitu den, edo ea arau horrek araugintza onaren printzipioak betetzen dituen, hau da, arauaren beharra, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Hori dena dela eta, Kontseiluak gomendatzen du:

- **Garrantzi juridikoko informazioaren atalean, bai behinik behin onartu diren arauekin, bai indarrean dauden testuekin batera ere, argitara eman daitezela “testu normatiboak egiteko espedienteak osotzen dituzten oroitidazki eta txostenak...”**

Epigrafe honetan adierazitako alderdiei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 6ko 39/2015 Legearen 132, artikuluan (arau-plangintza) ezarritako aurreikuspenak gehitu behar zaizkie. Hori dela eta, publizitate aktiborako beste betebeharrak gehituko dugu, 9.a, “Urteko Araugintza Plana argitaratzen da, zeinek hurrengo urtean onesteko igorriko diren erregelamendu-ekimenak jasotzen baititu”.

Betebeharren betetze-mailari buruzko txostenaren arabera, une honetan, udalaren webgunean ez dago araugintza plan hori argitaratuta. Ez da indarrean dauden arauen ebaluazioaren zabalpenerako ekintza proaktiborik egiten.

Beraz, Kontseiluak gomendatzen du:

- **Gasteizko Udalaren web gunean argitaratu dadila Urteko Araugintza Plana.**
- **Indarrean dauden arauen ebaluazioaren zabalpenerako ekintza proaktiboak egin daitezela.**

3.- INFORMAZIO EKONOMIKOA, AURREKONTUEI BURUZKOA ETA ESTADISTIKOA.

Txostenean egiten diren oharrak kontuan izanik, Udal Gardentasunaren Kontseiluak honako gomendio hauek eman ditu:

1. itemari dagokionez: *“Kontratu guztiak, beren xedea adierazi... Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.”*

Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen indarraldia hasi ondoren; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora, kontratazio publikoa kudeatzeko aplikazio berria

funtzionamenduan jarri du udalak, kontratazio eta gardentasunari dagozkion betebeharrak betetzeko asmoarekin ere. Baina informazio hori publikoa ez den bitartean, beharrezkoa deritzogu hurrengo gomendio hau berriro egiteari:

- **Argitara eman daitezela webgunean Udalak izenpetzen dituen Kontratueta atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere, erabaki hori udalak edota kontratugileak hartzen badu ere.**

4. itemari dagokionez: “*Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ez-betetzeengatik.*”, oraindik ez dira argitara eman, beraz, gomendatzen dugu:

- **Argitara eman daitezela webgunean enpresa kontratugileei ezartzen zaizkien zigorrak kontratuen ez-betetzeengatik.**

5. itemari (*sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena...*) eta 6. Itemari dagozkionak (*sinatzen diren kudeaketa-gomendioak...*, *honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak...*):

- **Txostenean esaten denarekin bat, argitara dadila akordio hauei buruzko informazioa osorik, hau da, 2/2016ko legearen 55. Artikuluan zehazten dena. Datu pertsonalak nahiz enpresa edo elkarten babespeko datuak ezkutatzuz, egokia litzateke hitzarmenen zerrendak estekak jartzea, zuzenean hitzarmen edo kudeaketa-gomendioaren testu osora jotzeko.**

Txostenean agertzen den 7. puntuari buruz, “*emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak*”, nahiz eta udala lanean ari den, lan-talde bat sortuz, nazio datu-basearen aplikazioaren garapenaren arabera dago, Diru-laguntzen legeak jasandako aldaketak ere kontutan hartu behar direlarik. Dena den, Dirulaguntzen udal ordenantzaren aldaketa beharrezkoa suertatzen da.

14. puntuak jasotzen duen betebeharra, “*beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera*”, betetzen ez den arren, aintzat hartzen du Kontseiluak Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Ereduan oinarrituz eta Gardentasun Plan operatiboa

delakoaren bitartez, zerbitzu-katalogoa definitzeko proiektua, informazio-sistema bat garatzea ahalbidetuko duena, legeak ezartzen duen betetze-maila baloraziorako baliabide izango dena. Helburu hori lortzeko ere laguntzen du kontu-emateen web plataforma berriak. Honen harira, Kontseiluak gomendatzen du:

- Zerbitzu-katalogoa definitzeko proiektuak aurrera egin dezala, informazio sistema bat garatzea ahalbidetuko duena, udal eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatearen baloraziorako baliabide izango dena

Aldi berean, Kontseiluari ongi iruditzen zaio open data atarian datuak jartzen ekintzeari, bai eta 2018ko lehen erdian jarriko den web atari berria, non udal aurrekontuari buruzko informazioa agertuko baita, formatu grafikoan eta herritarrentzako ikuspegitik. Hau guztia bat dator aurreko urteko irizpenean jasotako gomendioarekin¹, 8. puntuari dagokionez.

16. puntuaren betebeharra dela eta, *“Ondareko ondasun higiezin zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineko eskubide errealen bat dutenena, eta hala badagokio, zein erakunderi laga zaizkion”*, web guneko gardentasun atalean hurrengo informazio hau agertzen da: <<Orrialde honetan inbentario azken urteetako datarekin onetsitakoa kontsultatu daitezke (abenduaren 31ean). 2016 urteko datuak oraindik ez daude, urteko Kontu Orokorraren itxiera egiteke baitago (aurreikusita dago 2017ko uztailean)>>.

Aurreikusitako epea igaro denez, Kontseiluaren ustez, komeni da:

- Udal ondasunen inbentarioa eguneratu dadila.

4.- LANGILEGOARI BURUZKO INFORMAZIOA

3. itemari dagokionez, 2/2016 Legearen 56.c) artikulua araberan, antza denez ordezkari sindikalek datu pertsonalen babesarako duten eskubidearekin aurka egiten du. Hori

¹ - 2/2016 Legearen 50.6 artikulua betez, Kontseiluak gomendatzen du: “Izaera ekonomiko-finantzarioko informazioa, bai eta baliabide publikoen erabilerari buruzkoa, politika publikoen lehentasunezkoa, herritarren zerbitzu publikoekiko duten asebetetasun mailari buruzko, edota estatistikoki nahiz portzentaje bidez azaldu daitekeen beste edozelako informazioa adierazpen grafikoek lagunduta argitara dadila”.

dela eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari txosten bat ematea eskatzea planteatu daiteke, baina ez da ahaztu behar lege maila duen arau bat dela, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, hain zuzen, datu hauei eman behar zaien publizitatea ezartzen duena. Hori guztia dela eta, Kontseiluak berriro gomendatzen du:

- **"Ordezkaritza sindikaleko organoak osatzen dituzten kideen zerrenda" argitara eman dadila.**

Halaber, langilegoari buruzko informazio ahalik eta osatuena eta argigarriena izan dadin, Kontseiluak gomendatzen du:

- **Aurrekontuko plantila (plazak) eta lanpostuen zerrenda (lanpostuak) argitaratzeaz batera, jaso daitezela plazen eta lanpostuen arteko korrespondentziak.**
- **Lanpostuen katalogoak argitara eman daitezela**

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez:

1/2013 Legegintzako Errege-dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta beren gizarte-inklusiari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, bere 42 artikuluan honako hau ezartzen du: "*50 langile edo gehiago dituzten enpresa publiko zein pribatuak beharturik daude horien arteko 100tik 2 gutxienez desgaitasun bat duten langileak izatera*".

Arau hau aplikagarri zaie udal enpresa publikoei: AMVISA, TUVISA, Ensanche 21 Zabalgunea, S.A. eta GILSA-ri. Aitzitik, ez zaio aplikagarri Udalari berari, ez eta bere erakunde autonomoei ere (IIZ; Dantza Kontserbatorioa; Musika Eskola). Horiei ezarri behar zaie Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren 59. artikulua: "*Enplegu publikoko Eskaintzetan, lanpostuen kupo bat erreserbatuko da, ehuneko zazpia baino txikiagoa ez dena, desgaitasunen bat duten pertsonekin betetzeko*".

Funtsean, bi arau hauen xedea berbera da, hau da, ekintza positiboko neurriak ezartzea enpresek eta administrazioak bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonak kontrata

ditzaten, kontraturiko pertsona desgaituen portzentajea plantiletan gutxienez %2ra iris dadin. Horregatik, Kontseiluak gomendatzen du oraingoan ere:

- **Argitara eman dadila, eta eguneratuta mantendu, udalean lanean diharduten desgaitasunen bat duten pertsonen kopurua eta portzentajea, zer nolako lan harremana duten adieraziz.**

5.- TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN ETA ZERBITZU-ZORROAREN GAINKO INFORMAZIOA

Txostenean esaten dena kontuan izanik eta 2/2016 Legearen 54.d) artikulua aintzat hartuz, eta irizpen honen 9. orrialdean jasotakoarekin bat eginik, Kontseiluak gomendatzen du:

- **Udalaren zerbitzu-katalogoa definitzeko lanak aurrera egin dezala, 2018. urtea bukatu baino lehen, honek lagunduko baitu informazioa modu agregatuan, labur eta argi ematen.**

6.- BESTELAKO GAIK (2/2016 Legeko 58 eta 61 artikulua)

Ez dago atal honi buruzko gomendiorik.

7.- ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ENPRESA PUBLIKOAK

Bai Estatuko Gardentasun Legeak, bai eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 49. artikulua ere, gardentasun araubidea udal mailako enpresa publikoei hedatzen diete, administrazioek entitate horietan duten partaidetza, zuzeneko nahiz zeharkakoa, kapitalaren ehuneko 50ekoa baino handiagoa bada.

Vitoria-Gasteizko Udalaren kasuan, bai erakunde autonomoek (Ingurugiro Gaietarako Ikastegia; Dantza Kontserbatorioa; Musika Eskola) bai eta AMVISA-k, TUVISA-k eta GILSA-k ere, egokiro betetzen dituzte informazio publikoari buruzko eskakizunak. Bazegoen salbuespen nabarmen bat, ordea, gardentasun araudia betetzeari dagokionez: Ensanche 21 Zabalgunea, S.A, hain zuzen. Baina egoera zuzendu egin da 2017. urtean, Gardentasun Atari orokorrean adierazten diren antolaketa/erakunde eta aurrekontu/finantza izaerako datuak biltzen dira.